

BERTSO UDALEKUAK 2021

Bertsozale Elkartearen udalekuak egikaritzeko erabakiak

ABIAPUNTUA

Azken urteko osasun egoera dela eta, iaz ezin izan genituen Bertso Udalekuak egin. Urtebeteko esperientziaren ostean, eta hainbat arau eta gizarte bizitzako aldaketak tarteko, **Bertso Udalekuak egiteko asmoarekin aurrelanean aritu gara orain arte.**

Aurten, aforo neurriek bultzatuta, bost eguneko zortzi txanda egongo dira; udalekuetara ahalik eta parte-hartzaile gehien joateko aukera eskainiko dugu horrela. Lurraldetasunari dagokionez, Bertso Udalekuen berezitasuna da Euskal Herri osoko hezitzaile, haur eta gazteak elkartzea, eta oraindik mugikortasunaren bermerik ez dugun arren, ahal den guztia egingo dugu denek joateko aukera izan dezagun.

Dena dela, **egoeraren bilakaerak erakutsiko digu aurten Bertso Udalekuak gauzatuko ditugun ala ez**, eta nola. Une bakoitzeko osasun egoera, neurri eta legeak aintzat hartuta, gerta liteke udalekuak egiteko aukerarik ez egotea. **Bitartean**, Bertso Udalekuen antolaketa lanekin jarraitzea eta haur zein gaztetxoek izen-ematea abiatzea erabaki dugu; gurasoen esku jarritz Bertsozale Elkartetik Bertso Udalekuetan baliatuko ditugun neurri eta protokoloak buruzko informazioa. **Araudi hau zehazteko, orain arteko aisialdi legeak hartu ditugu abiapuntu gisa, udalekuen errealitatera egokituz, praktikan egingarriak eta bizigarriak izan daitezten.** Bertso Udalekuen barne araudia osatzerakoan, beharrezkoa ikusi dugu udalekuen ezaugarriak kontutan hartzea:

Batetik, udalekuetan haurren "etxea" aterpetxea da. Egun, haurrek musukoa kentzeko duten espazio bakarra etxea da (etxetik kanpo, musukoa jantzita izan behar dute uneoro). Aldiz, udalekuan kutsatzeko arrisku handiena aterpetxe barruan dago. Ondorioz, haurrek aterpetxean musukoa jantzita edukiko dutenez, beste espazio bat eman beharko diegu arnasa musukorik gabe hartzeko (16 orduz musukoa jarrita izan gabe) eta tarteka aurpegi bidezko komunikazioa ahalbidetzeko.

Bestetik, espazio gisa udaleku baten berezko funtzioa zein den ere kontuan izatea nahitaezkoa da. Udalekuen funtzioa sozializazioa da, beste haurrekin elkartu eta harremana izateko lekuak dira: taldean elkarbizitzen ikasteko, laguntasuna zaintzeko, partekatze, besteengana hurbiltzeko, besteekiko konfiantza sendotzeko lekuak dira. Horregatik, eta betiere osasun prebentzioak aintzat hartuta, protokolo eta neurriek bateragarriak eta egingarriak izan behar dute, sozializazio funtzio horri begira, udalekuetan sustatuko dugun dinamikarekin.

Hau guztia dela eta, Bertsosale Elkartek administrazioek osatzen dituzten dekretuak eta protokoloak abiapuntutzat hartu eta Bertso Udalekuetan praktikan gauzagarria den planteamendua zehaztu du. Oraingoz, udaleku itxiei eskainitako dekreturik ez da atera 2021ean, beraz, **2020ko dekretu hauen gainean hartu dira dokumentu honek biltzen dituen udalekuak egikaritzeko erabakiak:** E.A.E-n Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkariko 2020ko ekainaren 17ko agindua, 2020ko uztailaren 29ko agindua eta 2020ko abenduaren 11ko agindua; eta Nafarroan, Nafarroako Gobernuko apirilak 20ko 22/2021 dekretu forala eta apirilak 20ko 12/2021 orden forala.

Dekretu horiek aztertuta, hau da Bertso Udalekuetarako osatu dugun barne funtzionamendu araudia.

BERTSO UDALEKUETAN PRAKTIKARA ERAMANGO DITUGUN NEURRI ETA FUNTZIONAMENDU ARAU OROKORRAK

EGUNEROKO DINAMIKAREN PLANTEAMENDUA

- **Aukera baliatu, balio hezitzaileetan sakontzeko**
Bizitzen ari garen egoera aukera gisa baliatuko dugu, Bertso Udalekuetan aurrez genituen balioen garrantziaz jabetzeko eta zeharlerro berriei leku egiteko. Hala, 2021ean garrantzia berezia hartuko dute Bertso Udalekuetan osasunak eta garbitasunak, eta aurrez aurreko harremanen lanketak.
- **Haurren arteko harremanak sustatu, konfiantzan oinarritu**
Giro arduratsua bezain lasaia, konfiantzazkoa, baikorra sustatuko dugu eta elkarbizitzaren eta hartu-emanaren alderik onenez gozaten saiatuko gara: laguntasunaz, aurrez aurreko harremanaz, hurbiltasunaz, partekatzeaz.

COVID-19AREN PREBENTZIO NEURRIAK

ATERPETXEEN ETA ESPAZIOEN ZAINZA

- **Aterpetxe barruan, higiena, aireztapena eta musukoa**
 - Aterpetxe barruan musukoaz egongo gara eta gelak maiz aireztatuko ditugu, gehiegizko hotza eta korronteak ere zainduz.
 - Kutsatzeko arrisku gehien dagoen guneeetan (logelan, jantokian eta bainugelan), 3 taldetxotan antolatuko gara (gehienez 8 hurreko taldeetan).
 - Osasuna eta garbiketa udalekuen dinamikaren parte izango da, eguneroko ohitura bihurtuko dugu eta jarrera baikorrez gauzatuko dugu.
 - Lekuan lekuko aterpetxe bakoitzaren baldintzetara egokitu gara beti.

- Hezitzaileak espazioak garbitzeaz arduratuko dira egunero.
- **Aterpetxearen garbiketa, guztion ardura**
 - Hurrei, logelan nor bere espazioa txukun mantentzeko ardura emango zaie.
 - Hurrei, taldeka, ekintza bakoitzaren ostean erabili den materiala jasotzeko eta espazioa garbitzeko ardura emango zaie. Jantokian mahaiak jarri, jaso eta errazteko ardura izango dute hurrek.
 - Hezitzaileek garbituko dute aisialdiko materiala.
 - Bainugelak (konketak eta iturriak) egunero garbituko dituzte hezitzaileek.

MUGIKORTASUNA

Mugikortasuna ahalbidetzeko eskaera ere luzatua diote Eusko Jaurlaritzari aisialdi taldeek eta erantzunaren zain gaude. Uztailean udalekuetara joateko herrialdeen arteko mugikortasuna ofizialki baimenduta badago, Bertsozale Elkartetik desplazamendurako agiriak bideratuko dizkiegu partaideei. Gure udalekuetan EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko hezitzaile eta haurrak elkartzen dira. Zortzi txandetatik lau EAE-n eta beste lau Nafarroan egingo ditugu.

MUSUKOEN ERABILERA

- Haur bakoitzak bi musuko berrerabilgarri ekarri beharko ditu egonaldiak; bat zikindu edo galduz gero, bestea erabiltzeko.
- Musukoa erabiliko dugu: aterpetxe barruan gaudenean (lotarako eta jateko kenduz) eta herri barruan, udalekuko taldeaz kanpoko jendearekin gaudenean.
- **Aire librean arnasteko eta aurpegi bidezko komunikaziorako espazioak eskaini**
 - Eguraldiak uzten duenean, jarduerak aire zabalean egitea lehenetsiko da.
 - Aire zabalean talde jolasak egiten direnean, txandarako ezarritako 3 taldetxotan funtzionatuko dugu. Talde osoa elkartzeko jolasak ere egingo dira, prebentzio neurriak kontuan izanda.
 - Kutsatze arrisku handia duten jolasak (listua ukitzeko bide ematen dutenak, adibidez,) ez ditugu egingo.
 - Aire zabalean eta udalekuko partaideek soilik gaudenean, musukorik gabe egoteko aukera izango dugu: aire garbia arnasteko eta partaideekin aurpegi bidezko komunikazioa eduki ahal izateko, prebentzio neurriak kontuan izanda.
 - Aire zabalean gaudenean baina herriko jendearekin, musukoak jantziko ditugu.

OSASUN NEURRI ZEHATZAGOAK

- **Udalekura sartu aurretik sintomak zaindu edo PCRak egin**
 - Berez, egokiena, txandara sartu aurretik talde osoari PCR probak egitea litzateke, osasun sistema publikoak bideratuta. Eskaera hori luzatua diote Jaurlaritzari hainbat aisialdi taldek elkartuta, eta erantzunaren zain gaude.
 - PCRak egiteko aukerarik ez bada, protokoloan adieraziko den bezala, udalekura sartzeko hezitzaile eta haurrek gaixotasun sintomarik ez izatea zainduko dugu. Sintomarik izanez gero, ezingo da bertaratu.
- **Partaide kopurua murriztu eta egonaldia laburtu**
 - Txanda bakoitzean gehienez 15, 20 edo 24 haurreko taldea elkartuko da. Talde txikiek lagunduko digute egitasmoaren kalitatea hobetzen, espazio gehiago izaten eta funtzionamendua errazten.
 - Aterpetxeetan aforoaren %50 beteko dugu (2020ko ekainaren 17ko dekretuak logela eta jangelen aforoaren %60 baimentzen zuen). Beraz, partaideko espazio bikoitza izango dugu erabiltzeko.
 - Aurreko urteetan ez bezala, Bertso Udalekuetan aurten 8 txanda egingo dira eta guztiak 5 egunetara ekarri ditugu, ekintzen antolaketa erraztuz eta kutsatze arriskuko denbora ere murriztuz.
- **Talde bakarra, baina hiru taldetxotan antolatuta**
 - Txanda bakoitzean 3 taldetxo sortuko ditugu, gehienez 8 partaidekoak (2020ko ekainaren 17ko dekretuak gehienez ere 15 partaidera arte baimentzen zuen). Egunerokoan kutsatzeko arrisku gehien dagoen espazioetan, 3 taldetxo horietan antolatuko gara: logelatan, jantokian eta bainugelan. Talde txiki bakoitzak bere hezitzaile arduraduna izango du.
 - Alabaina, txanda bakoitzean talde osoa bat garela ulertzen dugu, eta talde batasun hori ere zainduko dugu ekintza jakinen bidez. Haurrek tarte libreetan aukera izango dute talde osoarekin egon ahal izateko. Izan ere, udaleku itxietan dagoen haur talde batek ezinbestean euren arteko elkarbizitza sortzen du. Horregatik, nahiz eta talde burbuilak egin eta osasun-neurriak hartu, elkarbizitzan talde bakarra garela onartuko dugu.
- **Norberaren garbiketa, eguneroko ardurua**
 - Goizero, haurrek arropa garbiak jantzi dituztela zainduko dute hezitzaileek. Egunero aldatu beharko dira azpiko arropak eta kamiseta.
 - Otordu bakoitzaren aurretik, eskuak ur eta xaboiez garbitzeko txandak bideratuko dituzte hezitzaileek, nork bere talde txikiarekin.

Otordu bakoitzaren ostean, eskuak eta hortzak garbitzeko txandak bideratuko dituzte hezitzaileek, nor bere talde txikiarekin.

- Txandan zehar dutxatzeko tarreak bideratuko dituzte hezitzaileek, nor bere talde txikiarekin.
- Higiene-jardunbide osasungarriak irakatsi sustatu eta indartuko dira udalekuetako parte-hartzaile guztien artean.

- **Haur bakoitzaren osasunari jarraipena**

- Hezitzaile bakoitzak bere talde txikiko haur bakoitzaren osasun fitxa beteko du egunero. Jarraipen taula honetan jasoko du: sukarrik izan duen, sintomarik izan duen, elikadura oharrak (otorduetan zer moduz jan duen) eta garbitasun ohiturak bete dituen (arropak aldatzea, eskuak eta hortzak garbitzea, dutxatzea).
- Haurrak osasunean zaindu beharreko berezitasunik badu (alergiak, medikazioak, dietak...) gurasoek aldeztatik jakinaraziko diote udalekuen koordinatzaileari. Ohar berezi horiek zainduko dira txandan eta hezitzaile bakoitzak bere talde txikiko haurrei jarraipena egingo die.
- Haur batek edozein gaixoaldi edo istripu badu, medikutara eramango dugu. Medikuari idatzizko informea eskatuko zaio, eta honek zehaztutako tratamendua eman aurretik, gurasoekin hitz egingo dugu, baimena eskatzeko.
- Haur edo hezitzaile batek COVID-19aren sintomarik balu, aterpetxea dagoen lurraldeko gobernuak zehaztutakoa jarraituko dugu. 2021eko dekreturik ez da atera oraino; 2020ko ekainaren 17ko dekretuaren arabera, momentuz jarraituko genituzkeen urratsak hauek dira: haurren kasuan, haurra arduradun batekin horrelako kasuetarako propio prestatuta egongo den gela batera eramango da. Ondoren, lurralde-eremuan ezarritako osasun-eremuko edo osasun publikoko dispositiboarekin harremanetan jarriko gara. Tokian tokiko lehen mailako arretako taldeak egin behar dio haurrari balorazio klinikoa eta eskatu behar du proba diagnostikoa, hezitzaile eta koordinatzailearen ardura izango dira jarraibideak betetzea.

- **Partaide batek PCR positibo ematen badu, zer egingo dugu?**

- COVID-19aren kasu positiboa identifikatu ondoren, Bertsozale Elkarteen protokoloa jarriko da abian, eta une oro beteko dira osasun-alorreko agintarien gomendioak. Hezitzaile eta koordinatzailearen ardura izango dira jarraibideak betetzea, ez baitagokiek aisialdiko profesionaleri, ez kontaktuen azterketa egitea, ez jardura bertan behera utzi edo ez baloratzea.

KOMUNIKAZIOA, FUNTSEZKOA

Bertso Udalekuei 2021ean emango diegun ikuspegia eta funtzionamendu arauen betetzea partaide guztiekin landuko dugu:

Udalekuen aurretik

- Gurasoekin, seme-alabentzat udalekuen aukera egin ahal izateko behar duten informazio osoa izan dezaten eta hasieratik praktikan izango diren baldintzen jakitun izan daitezen.
- Hezitzaileekin, udalekuak ondo prestatu ahal izateko eta egunerokoan arduraz eta koherentziaz joka dezaten eta protokoloaren jakitun izan daitezen.

Udalekuak gauzatu bitartean

- Haurrekin etengabeko komunikazioa sustatuko da, jakin dezaten egunerokoan zer-nola funtzionatuko dugun taldean.
- Gurasoekin, txandan gorabeherarik suertatuz gero, WhatsApp bidez zein email bidez, zer gertatu den eta nola bideratzen ari garen azalduko dugu.

Udalekuak amaituta

Kasurik agertuko balitz, txandan izan diren gurasoei eta hezitzaileei jakinaraziko zaie, protokoloak eskatzen dituen urratsak egiteko.

ERANTZUKIZUN PARTEKATUA

- Udalekuak ahalik eta baldintza osasuntsuenetan gauza daitezen, aipatutako neurriak betetzeko konpromisoa hartuko du Bertsozale Elkartek.
- Seme-alaba udalekura etortzeko aukera egiten duen gurasoa, zainduko diren baldintza zehatzak zein diren aurrez jakinik eta onartuta egingo du haurraren izen-ematea. **Baldintzak jasotzen diren dokumentu bat ere sinatuko du gurasoak izena ematerakoan**, berariaz.

Baldintzarik egokienak jarri arren, haurrak gaixotzeko arriskua beti egongo da (izan Covid-19 zein beste edozein gaixotasun). Bertsozale Elkartek jarritako baldintzekin udalekuetan parte hartzea, partaide eta guraso edo tutore legal bakoitzaren erabakia izango da.

Amasa-Villabonan, 2021eko maiatzaren 5ean.